

GURE IRAKURGELA

PREKUELAK ETA TRINKOTASUNA

Mundu anglosaxoian Antillei Mendebaldeko India esaten zale, Karibe Berria ere bai. Hortxe kokatu zuen Jean Rhys idazleak "Sargazo itsaso zabala" (Wide Sargasso Sea, 1966) gozagarri, ahots anitzeko eta konexio aniztun hau.

Sarritan jazo ohi den bezala, kritikagintzak paralelismo ugari egin izan ditu Jean Rhys idazlearen eta Bertha (edo Antoinette) protagonistaren artean: biak Karibekoak (Dominikakoa lehena eta Jamaikakoa bigarrena), biak kreolak (europar jatorrikoa baina Antilletan jaioakoa jendea), biak emakumezkoak, gizonen itzalpekoak eta arazo pertsonalez josiak (alko-



Josu Lartategi

Liburua:
"Sargazo itsaso zabala"
Egilea:
Jean Rhys.
Itzultzailea:
Txomin Arratibel.
Argitaletxea:
Elkar & Alberdania, 2005

holismoa dela, erotasuna dela...), biak desplazatuak (Karibetik Europara). Ederto batean dator kio hori guztia biografia literarioari, nik uste, baina Jean Rhys (jaiotzez, Ella Gwendolyn Rees Williams, eta aitortu behar da hor ere beste lotura-puntua dagoela protagonistarekin, berorren izenak aldatetarik baititu eleberrian zehar) Bertha protagonista baino higitzez europarragoa, askeagoa eta jantziagoa izan zela, ez baitzuten alferrik hamazazpi urtekin Ingalaterrara eramanean, hezkuntza jasoa eman, bitan dibortziatu eta hirutan ezkondu, hainbat liburu idatziz...

Liburu hau prekuela bat da, Charlotte Bronteren Jane

Eyre eleberririk dezimononiko ezagunean ageri den pertsonaia batean oinarritua (Bertha Mason, Edward Rochesterraren emazte eroa, kreola berra). Jean Rhysen oso jolas posmodernoa burutu zuen, bazter-pertsonaia literario jakin bati bizitza eta ahots berria eman, gorputza eta arima, eta hartara berrasmatu. Jokaldia ondo baino hobeto ateratzen zaitzaion: emakume eroren ume-ahotsa, gazte-ahotsa eta heldu-ahotsa entzungo ditugu, haren sentipen lazgarrien jatorria ezagutuko dugu, haren bakardadearen jatorria...

Eleberria gozo dago kontatua, modu intimoan, eta sentipenezko azalpenekin batera jende kreolaren drama eza-

gutuko dugu: pribilegioak galtzea, beltzek begirunerik ez izatea (esklabutza abolitu ostean), Europatik etorririk kolono berriek sasizuritzat edo erdibeltzatzat jotzea, gainbehera soziala eta kulturala nozitzea...

Gai gehiago ere nahasten dira (emakumeen arteko elkartasun eza, gizonetik menpekotasuna, emakumeen azpiratzea, transformazioa, izen-aldaketa, izaera-aldaketa, bazterkeria, emakume beltzen indarra...), eta horretan da nire iritziz eleberriarren balio handiena, hots, zeharkako tematika trinkoan; trinkotasuna baitaiko kontakizunari, gozo erretrataturiko mundua pintatzen badu ere.